



Arratsaldeko jardueren programazio proposamena

Egunak: astelehena, asteartea, asteazkena eta osteguna

Ordutegia: 15.30etatik-16.15etara

Zikloa	Maila	Ikasle kopurua	Irakasle kopurua	Asteko programazio proposamena				Ostirala
				Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	
Haur Hezkuntza	3 urte 4 urte 5 urte	3 ikasle 1 ikasle 6 ikasle	1 irakasle	Ludoteka	Ipuin kontaketa	Euskaraz mintza eta jolas	Ludoteka	14.00etan amaituko da eskola jardunaldia eta 15.30etan jantoki zerbitzua. Ez da arratsaldeko jarduerarik eskainiko.
Lehen Hezkuntza	LH1 LH2 LH3 LH4 LH5	3 ikasle 2 ikasle 3 ikasle 1 ikasle 4 ikasle	1 irakasle	Liburutegi tutorizatua: etxeko lanak eta mekanografia	Jolasak / Mahai jolasak	Irakurketa txokoa	Jolasak / Mahai jolasak	

- Arratsaldeko jarduera zerbitzuan 22 ikaslek eman dute izena osotara: Haur Hezkuntzako 8 ikaslek eta Lehen Hezkuntzako 14 ikaslek. Atxikituriko taulan aurkituko duzue maila bakoitzeko ikasle kopurua.
- Izen eman duten ikasle guztiek ez dute zerbitzua egunero erabiliko eta ondorioz, arratsalde bakoitzean egongo den ikasle kopurua alda daiteke.
- Haur Hezkuntzako ikasleak talde batean bilduko dira eta Lehen Hezkuntzako ikasleak beste talde batean. Talde bakoitza irakasle baten ardurapean egongo delarik.
- Talde bakoitzarentzat gela bat prestatuko da, material eta baliabide desberdinekin, eta ikasleek egunaren arabera proposamen deberdinak aurrera eramateko aukera izango dute. Honetaz gain, Lehen Hezkuntzako kasuan bereziki, egunaren arabera, ikasleen proposamenak ere jasoko dira saio hauetan taldean egitea gustatuko litzaiekenaren inguruan ideiak jasoz.
- Arratsaldeetako jardueretara geldituko diren ikasleak dagokien geletara igoko dira irakasleen laguntzarekin eta 16.15etan aterako dira guztiak eskolako ate nagusitik.
- Ostiralero, ikasle guztiak 14.00etan edo 15.30etan (jantokiko erabiltzaileak) aterako dira. Ez da arratsaldeko jarduerarik antolatuko.